

IL AZALPEN PROBA • <i>Altxorren uhartea</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** pasarte hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Ondoren, **zehaztu** pasartea (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua **–zure IL lanean bezala–**: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: **300** bat hitz; txukun (zirriborrorik gabe, letrakera argia...) eta margenak utzita.
  5. Amaitutakoan, kontatu hitzak (idatzi /50 /100 /150... markak) eta hemen azken kopurua: .....

Eguerdi aldera, kapitainaren atera hurbildu nintzen, edari eta sendagai batzuk eramateko.

—Jim —esan zuen—, merezi duen pertsona bakarra zara hemen. Badakizu ona izan naizela beti zurekin. Basokada bat ron ekarriko didazu, ezta, laguntxo? Urrezko ginea bat emango dizut, Jim.

—Sendagileak... —hasi nintzen.

Baina itsaslapurra sendagilea madarikatzen hasi zen, ahots ahulez, baina amorru biziz. Gero eta gehiago asaldatzen ari zen, eta aitaz kezkatzen hasi nintzen: egun hartan, aita oso goibel zegoen, eta giro baketsua behar zuen.

—Ez dut zure dirurik nahi —bota nion—, aitari zor diozuna baino ez. Baso bat ron ekarriko dizut, besterik ez.

Rona ekarri nionean, heldu eta zurrutada batean edan zuen.

—Bai horixe, hau hobeto dago, ez dago zalantzarik! —esan zuen—. Esan al zuen sendagileak zenbat denbora eman behar dudan gela zahar honetan?

IL AZALPEN PROBA • <i>Altxorren uhartea</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** pasarte hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Ondoren, **zehaztu** pasartea (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua –**zure IL lanean bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: **300** bat hitz; txukun (zirriborrorik gabe, letrakera argia...) eta margenak utzita.
  5. Amaitutakoan, kontatu hitzak (idatzi /50 /100 /150... markak) eta hemen azken kopurua: .....

Beharbada, lehorra zapaldu bezain laster oinak altxorren sartuko zituztela pentsatuko zuten lelo huts haiek. Umore txarra berehala joan zitzairen guztiei, eta aupadaka hasi ziren. Kapitaina, zentzuz jokatu, aldendu egin zen, Silverrek osterantz antola zezan. Geratu izan balitz, ezin izango zuen ezikusiarrena egin begien bistakoa zenaren aurrean: Silver zela benetako kapitaina.

Sei gizon geratu ziren itsasontzian, eta gainerako hamahiruak, Silver tarteko, txalupetara jaisten hasi ziren. Orduan bururatu zitzaidan gure larruak salbatzeko balio izan zuen nire lehenengo erokeria. Silverrek itsasontzian sei gizon utziz gero, argi zegoen ezin izango ginela itsasontziaz jabetu; eta sei baino ez zirenez, argi zegoen une hartan ez zutela nire laguntzarik behar. Horrela, bat-batean bururatu zitzaidan neu ere lehorrera joatea, eta, amen batean, itsasontzitik irristatu eta hurbilen izan nuen txaluparen aurrealdean ezkutatu nintzen.

Nire txalupa arinagoa zen bestea baino, eta, pilotua hobe zenez, argi eta garbi hartu zion aurrea besteari; branka ertzeko zuhaitzetaraino iritsi zenean, adar bati heldu eta zuhaitzen artean sartu nintzen; Silver eta gainerakoak ehun yardako distantzian zeuden oraindik.

IL AZALPEN PROBA • <i>Altxorren uhartea</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia		/ 2,5
Moldea		/ 2,5
Zuzentas.		/ 5
GUZTIRA		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** pasarte hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Ondoren, **zehaztu** pasartea (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua –**zure IL lanean bezala**–: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: **300** bat hitz; txukun (zirriborrorik gabe, letrakera argia...) eta margenak utzita.
  5. Amaitutakoan, kontatu hitzak (idatzi /50 /100 /150... markak) eta hemen azken kopurua: .....

Zeregin horretan ari nintzela, bi ahots entzun nituen. Bata lemazainarena zen. Guztiz mozkortuta eta haserre bizarden zeuden bi gizon haiek.

Jo zuen, azkenean, haize-boladak; goletak bira egin zuen, eta hurbildu egin zitzaidan; lokarria lasaitu egiten zela konturatu nintzen, eta, indarrez sakatuz, azken hariak ebaki nituen. Berehala, *Hispaniola*-ren txopan geratu nintzen, eta itsasontzitik esekita zegoen soka bat ukitu nuen. Zer egiten nuen pentsatu gabe, heldu egin nion; sendo zegoela konturatu nintzenez, ganbararen leihotik begirada bat ematea bururatu zitzaidan.

Ordurako, goleta eta haren laguntzua nahiko bizkor zihoazen, eta ezin nuen ulertu zaintzaileak zergatik ez ziren konturatzen itsasontzia mugitzen ari zela. Begirada bat nahikoa izan zen Hans eta laguna hil edo biziko borrokan ari zirela ikusteko.

Txalupatxoaren eserlekuan erori nintzen berriz ere, eta, berehala, astinaldi bat hartu nuen. Une horretan, bira egin zuen *Hispaniola*-k, eta beste norabide bat hartu zuen; gero eta bizkorrago mugitzen zen, hegoalderantz, itsaso zabalerantz itsasartean zehar; uhinak gero eta handiagoak ziren. Ahuspez erori nintzen txalupatxoaren hondora, eta Jainkoari gomendatu nion neure arima.

Itxuraz, orduak eman nituen horrela, uhinek batetik bestera eramaten nindutela; aparrak behin eta berriz bustitzen ninduen, eta hurrengo murgilaldian betiko joango nintzelakoan nengoen. Pixkanaka, nekea izua baino indartsuago bihurtu zen eta loak hartu ninduen. Txalupatxo hartan batera eta bestera mugitzen nintzen artean, Benbow Almirantea ostatu zaharrera itzuli nintzen, ametsetan.